

Errotiferoa eta haren etxea

Batzuek sagu baten karikatura ikusi duten arren, errotifero bat da hau, omogabe mikroskopiko urtar bat. *Belarrien* inguruan dituen zilioak (iletxo moduko egiturak) abiadura bizian mugituz, ahora bideratzen ditu inguruko elikagaiak. Eta *adreilu* esferikoz egindako hodi batean bizi da. Errotiferoaren gorputz gardenaren barruan *adreilu* horietako bat nola sortzen ari den ikusten da.

Charles Krebs estatubatuarrak "The 'mouse' roars" (saguaren orroa) izeneko argazki honekin irabazi du 2011ko Olympus Bioscapes Digital Imagin Competition lehiaketa.



ARG.: CHARLES KREBS

